

Lurra Dantza Taldeak folklore jaialdietan dantza egiteaz gain, beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, hala nola, ezkontzak eta inaugurazioak. Lurra taldeak, profesionaltasun osoz eskaintzen ditu zerbitzu hauek, beharren eta prezioaren (kostuaren) arabera.

Urretxuko kulturaren zati garrantzitsu bezala, Lurrak kursilo desberdinak eskaintzen ditu urtean zehar, bertako edo kanpoko jendeak dantza erraz eta herrikoi batzuk dantzatu ahal ditzan Urretxun egiten diren kultur ekitaldi, festa (jai) eta erromeriatan.

Kursilo hauek normalki Urretxuko Udalak eskaintzen dituen zerbitzu kulturalen barruan daude. Eta Lurrak udalarekin elkarlanean aurrera eramaten ditu arrakasta handiz.



Eskaintzen diren kursiloen artean, ondorengo dantzak egon ohi dira normalki (eskaera gehien jasotzen dutenak dira, beste edozein ere izan daiteke):

-

Arin-arin eta fandango

-

San Joan Su inguruan egiten diren dantzak

-

Olentzeroko dantzak

-

Ihauteriak (urtero desberdin bat)

-

Bedaioako ingurutxoak

Ordutegiak malgutasuna izan dezakete eta kursiloaren lehen egunean adosten dira parte-hartzaile eta monitoreen artean.

Kursilo gehienak doakoak dira.